Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala | Boletín Oficial de Gipuzkoa

2019ko apirilaren 30a, asteartea | 80 | Martes, a 30 de abril de 2019

## GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA

2

## ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

### GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### GOBERNANTZAKO ETA GIZARTEAREKIKO KOMUNIKAZIOKO DEPARTAMENTUA

*543/2019 Foru Agindua, apirilaren 26koa, hauteskunde-mahaietan Gipuzkoako Foru Aldundiak izango dituen ordezkarientzako ordainsariei buruzkoa.*

Departamentuko foru diputatuak honako agindu hau eman du 2019ko apirilaren 26an:

«Maiatzaren 26an, aldi berean egingo dira toki-hauteskundeak, Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hauteskundeak eta Europako Parlamenturako hauteskundeak.

Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hauteskundeak deitzen dituen administrazioa den Foru Aldundiak hiru hauteskunde-prozesu horietan hauteskunde-mahaietako behin-behineko boto-kontaketari dagozkion datuak bildu eta ezagutzera emateko zerbitzua eskainiko du bozketa-egunean bertan.

Horretarako, Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 91.3 eta 98.2 artikuluetan xedatutako ondorioetarako hauteskunde-mahaien aurrean Foru Aldundiaren ordezkari gisa arituko direnak izendatzeko, egoki jo da udal idazkariei laguntza eskatzea, aurrekoetan bezala. Donostiako kasuan, edonola ere, beste modu batera jokatuko da hauteskunde-emaitzak jasotzeko.

Horrenbestez, pertsona horiek eskainiko dituzten zerbitzuak ordaintzeko, ontzat jo da mahaiko 68,42 euroko zenbatekoa ezartzea.

Hori dela eta, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak 40.2.f) artikuluan eta Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzko urtarrilaren 31ko 7/2017 Foru Dekretuak 1.1.e) artikuluan emandako ahalmenez baliatuz, foru diputatu honek

EBAZTEN DU

*Lehenengo.* Maiatzaren 26ko toki-hauteskundeetan, Batzar Nagusietarako hauteskundeetan eta Europako Parlamenturako hauteskundeetan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerri guztietan -Donostiakoan salbu- hauteskunde-mahaiek egiten duten behin-behineko boto-kontaketaren datuak Foru Aldundiaren izenean bildu eta bidaliko dituztenen zerbitzuak ordaintzea.

Ordainduko den zenbatekoa 68,42 euro izango da, udalerrian eratzen den mahai bakoitzeko.

*Bigarren.* Aurreko atalean ezarritako zenbatekoaren arabera udalerri bakoitzarentzat ateratzen diren diru kopuruak aurrekontuko 0310.100.227.19.00.2019 kontu sailaren kargura ordainduko zaizkio dagokion udalari; eta udalak interesdunei ordainduko die, aldez aurretik idazkariak jakinarazitako zerrendaren arabera.

### DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA Y COMUNICACIÓN CON LA SOCIEDAD

*Orden Foral 543/2019, de 26 de abril, sobre gratificaciones al personal representante de la Diputación Foral de Gipuzkoa ante las mesas electorales.*

El diputado foral del Departamento ha dictado, con fecha 26 de abril de 2019, la siguiente orden:

«El próximo día 26 de mayo se celebrarán simultáneamente elecciones locales, elecciones a las Juntas Generales de Gipuzkoa y las correspondientes al Parlamento Europeo.

La Diputación Foral de Gipuzkoa, administración convocante de las elecciones a las Juntas Generales de este territorio histórico, tiene previsto realizar el día de la votación la recogida y difusión de los datos que arroje el escrutinio provisional de las mesas electorales en relación con los tres procesos electorales señalados.

A tal fin, siguiendo la fórmula empleada en anteriores ocasiones, se ha considerado oportuno recabar la colaboración de las secretarias y secretarios municipales para designar a las personas que actuarán ante cada mesa electoral como representantes de la Diputación Foral a efectos de lo dispuesto en los artículos 91.3 y 98.2 de la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, del Régimen Electoral General. No obstante, en el caso de San Sebastián, se arbitrará otro sistema para recabar los resultados electorales.

Para remunerar los servicios que prestarán estas personas, se estima adecuado fijar la cantidad de 68,42 euros por mesa.

En su virtud, en uso de las atribuciones que le confieren el artículo 40.2.f) de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa y el artículo 1.1.e) del Decreto Foral 7/2017, de 31 de enero, sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Gobernanza y Comunicación con la Sociedad, este diputado foral

RESUELVE

*Primero.* Remunerar los servicios que prestarán las personas que en todos los municipios del Territorio Histórico de Gipuzkoa, salvo en San Sebastián, actúen como representantes de la Diputación Foral en la recogida y el envío de los datos del escrutinio provisional que las mesas electorales efectuarán en las elecciones locales, a Juntas Generales de Gipuzkoa y al Parlamento Europeo el próximo día 26 de mayo.

La remuneración a abonar por este concepto se fija en la cantidad de 68,42 euros por cada mesa electoral que efectivamente se constituya en el municipio.

*Segundo.* Las cantidades que para cada municipio resulten de lo dispuesto en el apartado anterior se harán efectivas a los ayuntamientos respectivos con cargo a la partida 310.100.227.19.00.2019, para su abono a las personas interesadas, conforme a las designaciones previamente comunicadas por los y las secretarias.

EK\CV GAO-I-2019-02733

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek foru agindu honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko foru diputatu honi, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.»

Hau guztia denen jakinaren gainean jartzen da.

Donostia, 2019ko apirilaren 26a.—Juan José de Pedro Alonso, Departamentuko idazkari teknikoa. (2733)

La presente orden foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra ella recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante este diputado foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.»

Lo que se publica para conocimiento general.

San Sebastián, a 26 de abril de 2019.—El secretario técnico del Departamento, Juan José de Pedro Alonso. (2733)

EK\CV GAO-I-2019-02733